



ORDIZIAKO UDALA

## TESTU ZUZENKETA ETA ITZULPENA

---

### DOAN ESKAINTZEN DIZUGU:

- Hizkuntza aholkularitza.
- Euskarazko testuak zuzentzea.
- Gazteleraazko testuak euskaratzea.

## ZERBITZUA ESKAINTZEKO BALDINTZAK

### Baldintza orokorrak

- **Zuzenketari emango zaió lehenetasuna;** hau da, interesdunak (edo taldeko norbaitek) euskaraz egiteko gaitasunik badu euskaraz ekar dezan animatuko da, gure zerbitzua euskarazko testuen **zuzentasuna ziurtatzera** zuzentzeko.
- **Testuak erraz ulertzeko moduan entregatu beharko dira;** ahal bada, disketean (batez ere, zuzentzekoak) eta bestela makinaz edo letra txukunez idatzita.
- **Epeak.** Eskatutako itzulpen edo zuzenketa lana presazkoa denean, Euskara Zerbitzuak baloratu egingo du ohizko lanak oztopatu gabe egin dezakeen edo ez; eta **ezinezkoa bada, itzultzaile profesional batengana joatea gomendatuko dio interesdunari.**
- **Idatzia sortu duenaren edo arduradunaren telefono zenbakia** eskuratu beharko zaigu beti, edukia ulertzeko edo itzulpen egokia erabakitzeke zalantzaren bat izanez gero, kontsultatu ahal izateko.

### Zuzenketa

- Zuzendu beharrekoa aurrez interesdunak euskaratutakoa baldin bada, **jatorrizko testua ere ekarri** beharko du.

### Itzulpena

- **Gaztelaniatik euskarara itzuliko da,** inoiz ez euskaratik gaztelaniara, udalak bidalitako idatzia ez bada.



## ORDIZIAKO UDALA

➤ Edozein modutan, gaztelaniatik euskarara itzultzeko ere ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- **Testuaren erabilera:**

- Testua **zabalpen publikorako<sup>1</sup> edo behin eta berriz erabiltzekoa izatea:** kartelak, errotuluak, publizitate-orriak, inprimakiak, material-zerrendak, fakturak... Erakunde publikoetara (udal, Jaurlaritza, diputazio...) bidali beharreko testurik ez da itzuliko.
- Bestalde, **euskara hutsean erabiltzeko testuei emango zaie lehentasuna.**

- **Luzerari** dagokionez, printzipioz **3 orrialdetik beherako itzulpenak egingo dira.** 3 orritik gorakoen kasuan, eta Euskara Zerbitzuaren ohizko martxa oztopatu dezaketenean, kasua aztertu eta erabakiko da zer egin: bertan egin edo eskatzaileari itzultzaile profesional batengana jotzeko esan.
- **Antzeko testuak.** Euskara Zerbitzuaren laguntza jasotzen dutenek gorde egin beharko dituzte itzultzen zaizkien testuak, eta antzeko testuak suertatzen direnean, lehendik itzulita dutena ekarri beharko dute.

---

<sup>1</sup> "Zabalpen publikoa" esatean, herritar guztien aurrean jartzekoa esan nahi dugu, hau da zerbitzu publikoetan jendaurrean jartzekoa; hortaz, adibidez, elkarte edo talde pribatu batek sortutako aktak euskaratzeko orduan itzultzaile profesionalengana jotzeko aholkua emango diegu.